



## **EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOAREN ZUZENDARITZA BATZORDEAREN OHARRA**

Pandemiaren ondorioz une honetan bizi dugun egoera eta kirolean izaten ari den eragina ikusita, Euskadiko Errugbi Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak ezohizko bilera egin du, 2020ko apirilaren 25ean. Bertan, Espainiako Errugbi Federazioarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Kiroletako Zuzendaritzarekin bildu eta, haien iritzia entzun eta gero, Zuzendaritza Batzordeak aho batez eta beraren ardurapean erabaki hauek hartu ditu:

Aldez aurretik, jasota utzi nahi da erabaki horiek hartzeko oinarritzat hartu direla COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu den martxoaren 463/2020 Errege Dekretua (2020ko martxoaren 14ko BOE, 67. zk.) eta COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretua (2020ko martxoaren 18ko BOE, 73. zk.). Horien ondorioz, kirol-jarduerak nahiz kirol-ekitaldiak automatikoki etenda geratu dira.

Hauek dira hartutako erabakiak:

**Lehena.** Kontuan hartuta osasun-agindua betez kirol-jarduerak bertan behera utzi behar izan direla, eta Euskadiko Errugbi Federazioko (EEF) partidu eta txapelketen araudiko 5.artikuluaren adierazten dena kontuan hartuta, jarraian adierazten dizueguna, **5.ART. Ezinbestean ala ez ohiko nahiz hondamenezko zirkunstantzien kasuan, EUSKADIKO RUGBY FEDERAKUNTZAK bere eskumenaren ardurapean antolatutako lehiaketetan joko-denboraldi ofiziala aldatu, murriztu, eten ala hedatu ahal izango du. Euskadiko Errugbi Federazioak amaitutzat eman ditu bere gaitasunen markoan 2019-2020 denboraldirako antolatuta zituen kirol-txapelketak.**

Horri dagokiola, kirol-txapelketa haietatik eratorritako eskubideen ondoretarako, sailkapenak honela geratuko dira (Eranskina 1):

- **SENIOR GIZONEZKOEN, 18 URTE AZPIKO ETA 16 URTE AZPIKOEN MAILAK:**
  - Txapelketak amaitu gabe egonda eta amaierako sailkapena beste bat izan zitekeenez jokatu gabeko jardunaldi horiek jokatuz gero, lehenengo eranskinean azaltzen diren sailkapenak dira txapelketak eten egin diren datan onartzen direnak. **Ez da irabazlerik adierazten 1º eta 2º mailako gizonezko senior mailan ezta 18 eta 16 urtez azpiko mailatan ere.**



- **EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA:**
  - Txapelketa amaituta egonda, **irabazle adierazten da GETXO R.T.**

Modu berean, jakinarazten da Espainiako Errugbi Federazioak estatu-mailako txapelketak bertan behera uztea erabaki duela. Hori dela eta, Euskadiko Errugbi Federazioak ez du lurraldean aurreikusita zeuden kirol-jardueretan parte hartuko, aipatutako denboraldian.

**Bigarrena.** Une honetan, eremu publikoetan ezin da kirolik egin, eta, beraz, Euskadiko Errugbi Federazioak bere jarduera eten du. Hori horrela, Euskadiko Errugbi Federazioko langileei aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea izapidetu zaie, eta hitzartuta zeukaten lanaldia % 80ra murriztu, ezinbestean.

Balioetsi da gutxieneko zerbitzu bat mantendu beharko litzatekeela Euskadiko Errugbi Federazioaren administrazioko barne-kudeaketak egiteko, formakuntza ekintzen zabalitze ez presentziala eta klub, federatu eta orokorrean publikoari arreta, alarma-egoerak iraun eta kirol-jarduera federatuak etenda jarraitzen duen bitartean.

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea ezartzeko erabakia langileekin adostasunean hartu da, eta, horregatik, Euskadiko Errugbi Federazioak, egoera modu arduratsu eta gardenean kudeatzen saiatu denak, haien jarrera ona eta arduratsua eskertu nahi du.

**Hirugarrena.** Kontuan hartuta administrazioko eginbeharrak betetzen jarraitu behar direla, Zuzendaritza Batzordeak martxoaren 24rako aurreikusita zegoen eta alarma-egoeratik atzeratu den ohiko bilera ekainaren lehen astean deitu nahi du, egoerak ahalbidetzen dituen baliabideak erabiliz, betiere. Horregatik, bilera egin ahal izateko eskura dituen baliabide tekniko guztiak erabiltzeko konpromisoa hartu du, onartutako Errege Dekretuekin, Euskal Kirol Federazioen Batasunaren txosten juridikoekin eta Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzarekin adostasunean. Ildo horretatik, batzarkideek laster jasoko dituzte deialdiari buruzko informazioa eta erabili beharreko baliabide teknikoen jarraibideak.

Azkenik, erakutsitako elkartasun eta ilusioagatik eskerrak eman nahi dizkizuegu. Izan ere, oso garrantzitsuak dira errugbia eta, oro har, gizartea aurrera ateratzeko. Guztion ahaleginari esker lortuko dugula ziur gaude.



Donostian, 2020ko apirilaren 29an.

## EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAZIOAREN ZUZENDARITZA BATZORDEA

